

## Laguntza bestelako gaitasun-mailak edo gaixotasunak dituzten pertsoneri

**E**ROSKIn, ondo dakigu egunero zer erronka dituzten bestelako gaitasunak dituzten edo gaixotasun baten ondoriozko behar bereziak dituzten pertsonak. Hori dela eta, lankidetzak estua daukagu pertsona horien ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duten erakundeekin.



### FORUM SPORT kirol inklusiboarekin

Aurten, 3.600 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute Kosta Trailen 14. lasterketan; hori dela eta, FORUM SPORTEk, Salomonek eta Laboral Kutxak 11.000 euro eman dizkio GaituzSport Fundazioari. Horren xedea da gizarte inklusiboa eraikitzea, biodibertsitatea babesten duena, eta desgaitasuna duten zein ez duten pertsonen artean ariketa fisikoa eta kirola sustatzea, baldintza berdinetan, haien bizi-kalitatea hobetzeko.

### CAPRABO eta Alzheimer-en gaixotasuna

CAPRABOk parte hartu du PENSA proiektuan, alegia, dementzia agertu baino lehen gainbehera kognitiboa gelditzea posible den aztertzen duen proiektua. Hala, eguneroko ohiturak aldatzeko programa bat eta janari-prestakin bat hartzen ditu barne. Ikerketa Medikoen Itsasoko Ospitale Institutuaren (IMIM) eta Barcelonaβeta Brain Research Center (BBRC) elkartearen ekimen bateratua da (azken hori Pasqual Maragall Fundazioaren ikerketa-zentroa da), eta CAPRABOk harekin kolaboratzen du duela 6 urte.

### Minbiziaren aurkako borroka

EROSKIk beste urte batez parte hartu du Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak (AECC) emakumeentzat antolatzen dituen zenbait lasterketatan eta A Coruña bezalako hirietan egon da gaixotasunaren inguruan sensibilizatzeko eta bularreko minbiziaren aurkako borrokan laguntzeko dirua biltzeko stand batekin. Gainera, urtero bezala, AECCrekin elkarlanean aritu gara, biztanleria larrazaleko minbiziari buruz sensibilizatzeko; izan ere, gure 50. urteurrena ospatzeko Bilbon antolatu zen tokiko produktuen azokan ere parte hartu du. 2019an, bularreko minbiziaren eta minbizi ginekologikoaren aurkako tokiko elkarteekin lankidetzan aritu ginen ere, kooperatibako Bazkidearen Eguna ospatzeko Bilbon eta Donostian.

VEGALSA-EROSKIk gure bezeroen artean dirua biltzeko kanpaina bat antolatu du ere. Kanpaina horri esker, VEGALSA-EROSKIk ekarpenarekin batera, 20.000 euro baino gehiago eman zaizkio CRIS Minbiziaren Aurka elkarteari, meduloblastomaren aurkako terapia berriak garatzeko.

### Gure laguntza hartzen duten elkarteetako batzuk:



ACAMBI – Bilboko Bularreko Minbiziaren Elkarteak



ASONEVUS – Sortzetiko Nebo Erraldoi gaixotasuna dutenen Espainiako Elkarteak



ASVIDIA – Bizkaiko Diabetikoen Elkarteak



CRIS Minbiziaren Aurka



FEDE – Espainiako Diabetikoen Federazioak



West Sindromearen Fundazioak



ADEMGI – Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak



ASPANAFOHA – Arabako Minbizidun Haurren Guraso Elkarteak



BENE – Gaixotasun neurologikoak dituzten pertsonen eta senideen Bizkaiko elkarteak



EM Euskadi – Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioak



FEKOOR – Gutxitasun Fisikoa edota Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazio Koordinatzaileak



ONCE EUSKADI – Itsuen eta ikusteko desgaitasuna dutenen bizi-kalitatea hobetzeko helburua duen irabazi-asmerik gabeko korporazioak



AECC – Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak



ASPANOGL – Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarteak



COCEMFE – Desgaitasun Fisikoa eta Organikoa duten Pertsonen Espainiako Konfederazioak



EUSKAL GORRAK – Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioak



FEGEREC – Gaixotasun Arraroak eta Kronikoak dituztenen aldeko Galiziako Federazioak



WOP – Walk On Project